Protocolo de colaboración interinstitucional Prevención y actuación ante CONDUCTAS SUICIDAS  Gobierno de Navarra **Erakundeen arteko lankidetza-protokoloa** **JOKABIDE SUIZIDAK prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko** **2014ko uztaila** **Nafarroako Gobernua**	**HEZKUNTZA-SISTEMAREN JARDUKETAK:** **-Esku hartzeko eredua.** **-Segurtasun Plana: prebentzioa eta esku-hartzea jokabide autolitikoaren eta/edo suizidaren aurrean.** **-Koordinazioa beste sistema batzuekin.** **2025eko abendua.**

SARRERA

Ikastetxeen zereginei dagokienez, Jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko erakundearteko lankidetza-protokoloan[1] planteatzen da (zehazki, 3. eranskinean: Adingabeengan jokabide suiziden arriskua ebaluatzeko gida) honako hau dela balizko arriskua baloratu ondorengo jarduketetako bat: “Jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko ikastetxeko planean jasotako jarduerek egiten jarraitzea”.

[1] Protokoloan inplikatutako sistema publikoak dira Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak. Bestalde, adierazi behar da protokoloa berrikusteko eta egokitzeko fasean dagoela, hamaika urtez izan duen ibilbidearen ondoren.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeek, pixkanaka, aipatutako plana protokoloari jarraiki ezarri dute, kasu batzuetan Hezkuntza Departamentuko Bizikidetza Aholkularitzaren laguntzarekin.

Aholkularitzaren esperientziatik eta ikastetxeen ekarpenetatik abiatuta, **gida eta tresna hau prestatu dugu hezkuntza-orientazioko profesionalentzat**. Helburua da, egungo protokoloa oinarritzat hartuta, profesional horiek ikastetxeei modu zehatz eta azkarrean lagun diezaieten **prebentzio- eta esku-hartze plan espezifikoak** egiten (guk **Segurtasun Plana** deituko diogu), jokabide autolitikoari edo suizidari dagokionez ikastetxean gerta litezkeen egoeretarako.

PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Garrantzitsua deritzogu Protokoloaren helburuak gogoratzeari; dokumentuaren 7. eta 8. orrialdeetan daude jasoak. Hauek dira helburu orokorrak:

1. Jokabide suizida prebenitzea Nafarroako herritarrengan.
2. Esku-hartze eraginkorra eta efektiboa egitea, behar diren esparru eta eragile guztien parte hartzearekin.
3. Behar den jarraipena ezartzea, kasuaren arabera.
4. Baliabide instituzionalak eta gizarte osoa koordinatzea, prebentzio, esku-hartze eta jarraipenerako.

Helburu orokor bakoitzak helburu zehatz batzuk ditu. Jarraian, aipatuko ditugu gure ustez hezkuntza-sistemarekin zerikusi handiena dutenak:

-Fenomeno sozial honek duen garrantziaren gainean sentsibilizatzea herritarrak eta profesionalak.
-Jokabide suiziden arriskua hobeki detektatzea, prestakuntza eta ebaluazio-tresnak ezarriz
-Esku-hartze eraginkorra eta efektiboa egitea, behar diren esparru eta eragile guztien parte hartzearekin.
-Erantzun hobea bermatzea suizidio-saiakeren aurrean, jarduteko prozedurak edo protokoloak ezarriz.
-Krisi-egoeretan esku hartzea, dagokion esparru profesionaletik.
-Esku-hartzean ingurune hurbileneko pertsonak barne hartzea.
-Behar den jarraipena ezartzea, kasuaren arabera.
-Arretaren jarraitutasuna bermatzea laguntza-zirkuituen artean.
-Arreta ahalik eta hoberena ematea biktimaren hurbilekoei, suizidioaren ondoren.
-Arreta ahalik eta hoberena ematea jokabide suizidaren aurrean esku hartzen duten profesionalei.
-Komunikazio-kanalak ezartzea profesionalen artean eta zerbitzuen artean.
-Erakundearteko protokolo orokor bat ezartzea, jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko.
-Esparru eta baliabide asistentzial bakoitzean jarraitu beharreko esku-hartzeko prozesua zehaztea.

KONTZEPTU BATZUK

Protokoloan, 9. orrialdetik 11.era bitarte, **suizidioarekin lotutako gaien definizio kontzeptuala** egiten da, iturritzat hartuta *National Center for Injury Prevention and Control (CDC)* eta Silverman eta ikasleen azterketak.

Lehenbiziko iturriari dagokionez, kontzeptu hauek bereziki baliagarriak direla uste dugu:

Nork bere buruari eragindako indarkeria (jokabide autosuntsitzailearen antzekoa). Nork bere buruari nahita zuzendutako portaera, lesioak eragiten dituena, edo eragin ditzakeena. Hemen ez dira sartzen arrisku handiko jarduerak; izan ere, ziurrenik bizitza arriskuan jarri arren, banakoak ez du uste bere buruari kalte egiteko jokabideak direnik. Nork bere buruari eragindako indarkeria honela sailkatzen da:

-Nork bere buruari eragindako indarkeria ez-suizida: nork bere buruari nahita zuzendutako portaera, lesioak eragiten dituena, edo eragin ditzakeena. Ez dago bere buruaz beste egiteko asmoaren frogarik, ez inplizituki eta ez esplizituki.

-Nork bere buruari eragindako indarkeria suizida: nork bere buruari nahita zuzendutako portaera, lesioak eragiten dituena, edo eragin ditzakeena. Bere buruaz beste egiteko asmoaren ebidentzia dago, inplizituki edo esplizituki.

Esplizitua: erabat agerikoa edo lausotasun edo anbiguotasunik gabe adierazia, inolako zalantzarik utzi gabe esanahiari edo asmoari buruz.
Inplizitua: zalantzarik eta erreserbarik gabekoa, nahiz eta zuzenean adierazia ez egon; zerbaiten izaeraren berezkoa.

Suizidio-saiakera zehaztugabea. Nork bere buruari zuzendutako portaera, nahita lesioak eragiten dituena, edo eragin ditzakeena. Ez dago argi suizidio-saiakera den, eskura dagoen ebidentziaren arabera.

Suizidio-saiakera. Nork bere buruari zuzendutako portaera, kaltegarria izaten ahal dena, ez-hilgarria; jokabide horren asmoa, dela erabatekoa dela hein batean, hiltzea da. Suizidio-saiakera batek lesioak eragiten ahal ditu edo ez.

Suizidio-saiakera geldiarazia.

-Beste batzuek geldiarazia: norbaitek bere burua lesionatzeko neurriak hartzen ditu, baina beste norbaitek edo kanpoko baldintzek geldiarazten dute, lesio hilgarria gertatu baino lehen. Geldiaraztea edozein unetan gertatzen ahal da, ideiagintza suizida agertzen denetik.

-Norberak geldiarazia: norbaitek bere burua lesionatzeko neurriak hartzen ditu, baina bere kabuz gelditzen du ekintza, lesio hilgarria egin baino lehen.

Bestelako jokabide suizidak, prestaketa-ekintzak barne. Suizidio-saiakera bat egiteko ekintzak edo prestaketa. Hitzezko adierazpenaz edo pentsamenduaz haratago doan edozer barne har dezake, hala nola metodoa (adibidez, su-arma bat erostea, pilulak jaso eta biltegiratzea) edo suizidioaren ondoriozko heriotzarako prestatzea (adibidez, suizidio-ohar bat idaztea, gauzak oparitzea).

Suizidioa. Nork bere buruari zuzendutako lesio-jokabide batek eragindako heriotza; jokabidearen asmoa hiltzea zen.

Bigarren iturriari dagokionez (Silverman et al.), horretatik eratorri eta hartu den eredua oso hedatua dago egungo praktika klinikoan. Terminologia horren definizioak honako hauek dira:

Ideiagintza suizida. Suizidioari buruzko pentsamenduak (kognizioak).

Komunikazio suizida. Pertsonen arteko ekintza bat, non norbaitek aditzera ematen baitu bere buruaz beste egiteko pentsamenduak, gogoa edo asmoa dituela; modu inplizitu edo esplizituan argi gelditzen da komunikazio-ekintza hori bera ez dela suizidio-jokabide bat. Komunikazio suizida ideiagintza suizidaren (kognizioak) eta jokabide suizidaren arteko bitarteko puntua da. Kategoria horretan sartzen dira hitzezko zein hitzez bestelako komunikazioak; asmo suizida izan dezakete, baina ez dute lesiorik eragiten. Komunikazio suizidak bi motatakoak dira:

-Bere buruaz beste egiteko mehatxua: pertsonen arteko ekintza, hitzezkoa edo ez-hitzezkoa, etorkizun hurbilean gerta litekeen jokabide suizida bat aurreikusteko aukera eman dezakeena.
-Bere buruaz beste egiteko plana: metodo bat proposatzea jokabide suizida potentzial bat gauzatzeko.

Jokabide suizida. Gidan, jokabide suizida honela definitzen da: hiltzeko asmoa —dela erabatekoa, dela hein batean— duen jokabidea. Autolesioaren edo keinu suizidaren kontzeptua honela definitzen du: hiltzeko asmorik agertzen ez duen keinua, nahiz eta posible den beste xederen bat lortu nahi izatea. Jokabide suizida zehaztugabea ere definitzen du: intentzio suizidaren mailaren bat duen jokabidea. Jokabide suizidaren barrenean suizidio-saiakera eta suizidioa sartzen ditu.

Terminologia bateratua izate aldera eta jokabide suizida ebaluatzeko tresna bat proposatzeko helburuarekin, **uste dugu hiltzeko asmoa identifikatzea beharrezkoa dela, hori izanen baita jokabide suizida eta suizida ez dena bereizteko irizpidea.**

Bestalde, eta kontzeptuei buruzko atal honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea zer toki izan behar duten **konfidentzialtasunak eta sekretu profesionalak, suizidioari dagokionez**.

Jakina denez, gure jardun profesionala konfidentzialtasunaren eta sekretu profesionalaren printzipioen mende dago, besteak beste. Baina egia da salbuespenak ere badaudela, Protokoloaren 32. eta 33. orrialdeetan jasotzen denez:

Aztertutako kode deontologikoetan (mediku, erizain, osasun-laguntzaile tekniko, psikologo eta gizarte-langileenak) kapitulu espezifiko bat dago konfidentzialtasunari eta sekretu profesionalari buruz; horietatik, honako hauek ondorioztatzen ahal dira:

- Sekretua gordetzea jardun profesionalaren berezko betebeharra da.

- Betebehar horrek barnean hartzen du paziente edo erabiltzaile bati buruz jakiten den informazio guztia.

- Beren lan-jarduerarengatik paziente edo erabiltzaileen arretan zuzenean edo zeharka parte hartzen duten guztiak behartzen ditu.
- Profesionalaren lehentasuna izanen dira erabiltzailearen bizitza, segurtasuna eta osotasun fisikoa, psikologikoa eta soziala, eta ezinbesteko informazio konfidentziala baino ez du emanen esku-hartze profesionalaren zirkulu ahalik eta mugatuenean.

- Honako kasu hauetan bakarrik ezagutarazten ahal da informazioa baimenik gabe:

    - Legeak hala aginduta.

    - Hirugarren pertsonei edo pazienteari berari kalte larriak saihesteko.

    - Nahitaez deklaratu beharreko gaixotasun eta gertakizunetan.

    - Pazienteak profesionalaren aurkako salaketa bidegabea egiten duenean.

    - Azken batean, profesionalek sekretu profesionala hautsi ahal izateko, salbuespenezko egoera oso larria gertatu behar da, erabiltzaileari, gizarte-langileari[2] edo hirugarrenei arrisku aurreikusgarria edo berehalakoa dakarkiena. ***Informatzeko betebehar hori hiltzeko arriskuan dagoen ikaslearen familiari ere aplika dakioke, baita ikaslea adin nagusikoa denean ere; salbu eta familiarekin duen harremana bera arriskua azkartzen edo eragiten duen faktorea denean. Kasu horretan, erantzuna osasun-sistemako eta gizarte-zerbitzuetako profesionalekin batera landuko litzateke.***

HEZKUNTZAN JOKABIDE SUIZIDA PREBENITZEKO ETA HORREN AURREAN ESKU HARTZEKO EREDUA

Protokoloak eredu bat jasotzen du, jarduketa-esparru orientagarri bat emateko asmoz. Helburua da hori ikastetxe bakoitzeko Bizikidetza Planean sartzea; zehazki, planaren jarduketa-ildoetako bat izatea. Ikastetxe bakoitzak dagokion errealitatera eta ezaugarri zehatzetara egokitu eta testuinguruan jarriko du, eta behar diren mekanismoak antolatuko ditu hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztiek ezagut eta erabil dezaten.

[2] Gure ustez, figura profesional horren aipamen hori ez da esklusiboa, iruditzen baitzaigu hezkuntzako orientatzailearen figura ere barne hartzen duela.

Bai prebentzioaren ikuspegitik, bai esku-hartzearen ikuspegitik, irakasleek, ikasleek edota familiek egin beharreko lehen azterketa ikaslearengan agertzen diren arrisku- eta babes-faktoreena izan behar da, hauteman ahal izateko ea jokabide suizida baten aurrean gauden. Faktore horiek zehatz-mehatz deskribatzen dira Protokoloaren 5. puntuan.

Kasu baten diagnostiko zehatzari dagokionez, edozein irakaslek, senidek edo ikaskidek hautematen ahal ditu balizko krisi suizida[3] baten adierazleak, eta hark orientatzaileari edo zuzendaritzari jakinarazi behar dio, lehenik eta behin. Gainera, laguntza eskatu behar die ikastetxeko erreferentziazko irakasleei (laguntza-agente izateko behar adina trebezia dituzten irakasleetako bat izendatzen ahal da erreferentziazko irakasle).
Jarraian, esparru bakoitzean egin beharreko jarduketen edo urratsen zerrenda jasotzen da. Neurri horiek hiru atal edo unetan antolatuta daude: arrisku-jokabide bat hauteman aurretik, hautematen denean eta hauteman ondoren aplikatzeko, edo profesional batek egoera baloratu ostean erabiltzeko.

Aurretik: “Isiltasuna hautsi”.

Irakasleek egin beharrekoa:

-Tutorearen elkarrizketak familiekin eta ikasleekin, bai eta irakasle-taldeak egindako banakako erregistroak ere, gutxienez hiru hilean behin, arrisku- eta babes-faktoreak aztertzeko. Jarduketa horri esker, hasierako informazioa lortuko da, etorkizuneko ekintzak bideratzen lagunduko duena.

-Tutoretza afektiboak irakasleen eta arriskuan dauden ikasleen artean, komunikazio-espazio seguruetan, prestutasuna, errespetua eta konfidentzialtasuna helarazteko eta, hala, ikaslearen kezkei edo sufrimenduari buruz hitz egin ahal izateko[4].

-Berdinen arteko laguntza-sareak sortzea eta ikuskatzea arrisku-egoeran dauden ikasleei zuzenduta, sare horiek susta dezaten akonpainamendua, laguntza, hurbiltasuna, enpatia, ikasleen arteko elkartasuna eta abar.

-Ikasleei jakinaraztea nor diren ikastetxeko erreferentziazko irakasleak, laguntza-agente gisa ariko direnak.

-Taldeko tutoretzak eta beste jarduera batzuk, zenbait gaitasun emozional sustatzera bideratuak, hala nola: erresilientzia, porrota onartzea, frustrazioarekiko tolerantzia, nork bere burua ezagutzea, autonomia, helburuak jartzea, gogobetetze pertsonala, automotibazioa, afektibitatea, lotura positiboak ezartzea, eta trebetasun sozialak eta

[3] Krisi suizidatzat hartuko da, ez bakarrik ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo gauzatutako suizidio-saiakera, baizik baita pentsamendu eta ideiagintza suiziden adierazpena, autolesioen presentzia edo bi horien konbinazioa ere.
[4] Horri dagokionez, Bizikidetza Aholkularitzatik gomendatzen dugu tutoretza horien “gai-zerrendan” ezongiarekin edo jokabide suizidarekin zerikusirik ez duten gaiak ere sartzea; zehazki, “Taldeko tutoretzak eta beste jarduera batzuk” puntuan jasotzen direnak. Horiek barne har ditzakete jarduera ludikoak, zaletasunak eta abar.

komunikatzeko eta gatazkak konpontzeko trebetasunak. *Horretarako, bereziki erabilgarriak izan daitezke* ***maletatxoak (Laguntza Programako erreminta-kutxak)*****.**

-Arlo bakoitzeko curriculumean hezkuntza emozionala ere jorratzea, tutore-lanaren osagarri. -Berariazko metodologia erabiliko da, zenbait hezkuntza-ekintza erabiliko dituena eduki hauek lantzeko: krisi pertsonaletan laguntza eskatzea eta ematea, zailtasunei itxaropenez aurre egitea, bizitzaren zentzua, jarduera solidarioak eta besteak zaintzekoak (horretarako erabiliz, adibidez, idazlanak, filmak, gelako dinamikak, erakusketak eta eztabaidak, guztiak ere dagokien garapen didaktikoarekin).

-Bizikidetzari buruzko prestakuntza ematea irakasleei: nola ebatzi gatazkak, hezkuntza emozionala, psikologia positiboa, eta nola egin aurre doluari eta krisi pertsonalei.

-Ikasleentzako prestakuntza espezifikoa, berdinen arteko laguntza-sare bat edo bestelako laguntza-programak sortzeko (ikasle laguntzaileak, bitartekaritza, bizikidetza-zirkuluak, berdinen arteko tutoretza eta abar).

-Jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean esku hartzeko eredu hau ikastetxe bakoitzaren testuingurura egokitzea, barne dela "Adingabeengan jokabide suiziden arriskua ebaluatzeko gida" ere; hartara, ikastetxeetan ohikoak diren egiturak eta prozedurak aprobetxatuko dira.

-Alarma-zantzua berrestea honako egoera hauetan: (1) edozein irakaslek hainbat arrisku-faktore hautematen dituenean; (2) orientatzaileak ebaluazio-gida erabili eta arriskua badagoela egiaztatzen duenean; (3) familia batek semearen edo alabaren egoera emozionalari edo osasun mentalari buruzko kezka helarazten duenean; (4) laguntza-baliabide (osasun-zentro, ospitale...) baten bidez informazioa jasotzen denean; (5) ikasleak asmoa hitzez adierazten duenean, edo (6) gertaera autolitikoak gertatzen direnean.

-Ikastetxean jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean esku hartzeko plana aktibatzea, arrisku-egoera edo alarma-zantzua berresten bada.

-Koordinazio eta komunikaziorako bideak ezartzea ikaslea artatzen duten baliabide asistentzialen artean eta, beharrezkoa bada, jarraipenerako eta erabakiak hartzeko erakundearteko batzordea aktibatzea.

Ikasleek egin beharrekoa:

-Laguntza bilatzea erreferentziazko irakasleen artean (ikasleentzako laguntza-agente izateko izendaturikoak). Figura espezifikorik ezarri ez bada, tutorea edo orientatzailea izanen dute kezkagarri zaizkien egoerei buruz modu irekian hitz egiteko pertsona.

-Kasu horietarako erreferentziazko irakasleei jakinaraztea, bizkor, eraginkortasunez eta konfidentzialtasunez, arrisku-faktoretzat jotzen ahal den alarma-zantzu oro.

-Berdinen arteko laguntza-sarean parte hartzea[5], bai laguntza jasotzeko eta bai emateko, betiere irakasle baten aholkularitzaren pean.

-Ikasleentzat antolatzen denean berdinen arteko laguntza-programei buruzko prestakuntza, horretan parte hartzea.

-Ikasleen arteko elkartasunarekiko sentsibilizazioa eta motibazioa izatea.

Familiek egin beharrekoa:

-Ikastetxearekin lankidetzan aritzea, jarrera irekiarekin eta konfiantzarekin, komunikazioa errazteko.

-Ikastetxearekin harremanetan jartzea, batez ere orientatzaile edo tutorearekin, familian krisi-egoera bereziak agertzen direnean, ikasleari zuzenean eragiten ahal diotenak.

-Beharrezkoa izanez gero, ikastetxeko orientatzaileari edota beste profesional batzuei aholkularitza eskatzea.

-Seme-alaben kezkak eta zailtasunak entzuteko eta haiei buruz hitz egiteko jarrera izatea.

-Era aktiboan parte hartzea familiei zuzendutako prestakuntzan, seme-alaben hezkuntza sozioemozionalari eta balio etikoei loturiko gaietan.

-Prest egotea baliabide komunitarioak erabiltzeko (pediatra, osasun mentala, gizarte-zerbitzuak eta abar).

Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoa:

-Doluari eta jokabide suiziden prebentzioari buruzko prestakuntza-jarduerak diseinatzea, irakasleen prestakuntzako urteko plan guztietan.

-Hezkuntza-komunitateei aholku ematea, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren bidez eta Bizikidetza Aholkularitzaren bidez, hala eskatzen den kasuetan.

-Ikastetxeen eta beste profesional espezializatu batzuen arteko lankidetza-neurriak bultzatzea, sentsibilizazioa landu dadin eta prebentzio-neurriak eta baliabide

[5] Lehenik eta behin, ikasleek Berdinen arteko Lagun Egiteko Sistema batean parte hartzea (sistemak ikastetxeko Bizikidetza Planaren atal bat izan beharko luke) ez da ulertu behar soilik beste kide batzuen jokabide autolitikoaren testuinguruan; aitzitik, hainbat arrazoirengatik laguntza hori behar duten kideei lagun egitearen testuinguruan ulertu behar da, esaterako: ikasle bakartuak, jazarpenaren edo ziberjazarpenaren biktima direnak, ikastetxera iritsi berriak… Era berean, oso garrantzitsua da, alde batetik, zer ikaslek lagundu dezaketen hautatzea (heldutasuna, erantzuteko gaitasuna, prestakuntza…) eta, bestetik, laguntza hori oso argi definitzea, ikasleak ez dezan bizi zaurgarritasun- edota arrisku-egoeran dagoen kidearen ongizatearen ardura nagusia bere gain duela.

asistentzialak gara daitezen. Esparru horretan dago “Hezkuntza Departamentuaren eta San Juan de Dios ospitalearen arteko lankidetza-hitzarmena, bizitzaren amaieraren gainean sentsibilizatzeari eta hezteari buruzkoa”.

-Beharrezko diru-baliabideak ematea, hezkuntza-komunitateek eta bereziki irakasleek prestakuntza eta aholkularitza egokia jaso dezaten, helburu harturik jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko plana garatzea eta sentsibilizatzea.

-Ikasleen artean gertatzen diren suizidio kasuak erregistratzea eta horiek aztertzea.

-Baliabide pertsonalak ematea, ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko plana garatzeko.

-Jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean esku hartzeko Erakundearteko Batzordean parte hartzea, Bizikidetza Aholkularitzaren bitartez.

Bitartean: “Norbaitengan arriskua identifikatu da”.

Irakasleek egin beharrekoa:

“Arriskua” dagoela jo behar da honako kasu hauetan:

-Iraganean jokabide autolitikoak izan baditu.

-Hiru arrisku-faktore edo gehiago hautematen badira ikasturte berean.

-Familiak ikastetxeari jakinarazten badio arriskua hauteman duela.

-Ikaslearen hurbilekoek arriskua hauteman dutela jakinarazten badiote tutoreari, lagunei, bikotekideari eta abarri.

-Orientatzaileak arriskua hautematen badu “Adingabeengan jokabide suiziden arriskua ebaluatzeko gida” aplikatu ondoren.

Norbaitengan arriskua identifikatzen bada, ikastetxeak berehala egin beharrekoak hauek izanen dira: entzutea, komunikatzea eta plana aplikatzea. Horretarako, honela jardun behar da:

-Lehen urratsa izanen da hezkuntza-komunitateko edozein kidek susmoa jakinaraztea ikastetxeko orientatzaileari.

-Jarraian, orientatzaileak arriskua ebaluatuko du, **“Adingabeengan jokabide suiziden arriskua ebaluatzeko gida”** aplikatuz.

-Orientatzaileak arriskua badagoela identifikatzen badu, zuzendaritzari jakinaraziko dio.


-Jarraian, behar diren eskola-egiturak aktibatuko dira kasuan kasuko jarduketak egin ditzaten, ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko planari jarraikiz.

-Suizidio-saiakerak gertatzen direnean edo ideiagintza suizida dagoenean, erreferentziazko pertsonak mobilizatuko dira, beharrezko jarduketa-ekimenetarako (gutxienez, orientatzailea, tutoreak eta zuzendaritza-taldea).

-Jokabide suizidak gertatzen direnean, erreferentziazko pertsona horiek berak dira bizkor eta arduraz jardun behar dutenak. Laguntza- eta/edo dolu-prozesuak hezkuntza-komunitate osoari eragiten dio, neurri handiagoan edo txikiagoan. Horregatik, jarduketa ez da gertaera izan den egunera mugatuko; aitzitik, gertaera horren eraginari hezkuntza-komunitateak behar duen denboraz erantzunen zaio.

-Ikastetxe bakoitzeko arduradunek fluxugrama honi jarraikiz jakinarazi behar dute saiakera edo ideiagintza:

Flujograma 3. Actuación ante riesgo autolítico detectado en Educación



Jatorrizkoa (Gaztelaniaz)	**Itzulpena (Euskaraz)**
Flujograma 3. Actuación ante riesgo autolítico detectado en Educación	**3. Fluxu-diagrama. Nola jardun Hezkuntzan detektatutako arrisku autolitikoaren aurrean**
RIESGO AUTOLÍTICO	**ARRISKU AUTOLITIKOA**

Jatorrizkoa (Gaztelaniaz)	Itzulpena (Euskaraz)
Conducta autolítica o verbalización autolítica CON AGITACIÓN	Jokabide autolitikoa edo hitzezko adierazpen autolitikoa, ASALDURAREKIN
LLAMAR AL 112 Y AVISAR A LA FAMILIA	DEITU 112ra ETA ABISATU FAMILIARI
Conducta Autolítica	Jokabide autolitikoa
Si el menor está en tratamiento en Salud Mental, seguir las pautas indicadas por su terapeuta	Adingabea Osasun Mentaleko tratamenduan badago, jarraitu bere terapeutak adierazitako jarraibideei
AVISAR A LA FAMILIA Y ACUDIR AL SERVICIO DE URGENCIAS CORRESPONDIENTE	ABISATU FAMILIARI ETA DAGOKION LARRIALDI-ZERBITZURA JO
Verbalización o Ideación Autolítica	Hitzezko adierazpena edo ideiagintza autolitikoa
Valorar la Planificación de la Ideación suicida	Baloratu ideiagintza suizidaren plangintza
Avisar a la Familia	Abisatu familiari
Valorar grado de contención familiar	Baloratu familiak adingabeari eusteko zer gaitasun duen
Contención suficiente	Euste-gaitasun nahikoa
Tomar decisión conjunta con la familia	Erabakia familiarekin batera hartu

Jatorrizkoa (Gaztelaniaz)	**Itzulpena (Euskaraz)**
Contención NO suficiente	Euste-gaitasun nahikorik EZ
Acudir al Servicio de Urgencias correspondiente	Dagokion larrialdi-zerbitzura jo
Preguntar si está en tratamiento en Salud Mental	Osasun Mentalean tratamenduan dagoen galdetu
Contactar con el profesional que le atiende. Seguir sus pautas	Harremanetan jarri arreta ematen dion profesionalarekin. Haren jarraibideak bete

-Ahal den neurrian konfidentzialtasuna zaindu behar da; irakasleek jarrera lasaia eta ulerkorra izaten saiatu behar dute, eta entzun eta lagundu behar dituzte bai arrisku-egoeran dagoen ikaslea, baita haren hurbilekoak ere. Behar horiei erantzuteko, taldeko ekintzak edo banakako tutoretzak eginen dira.

-Zaintza eta jarduteko jarraibideak doitu eginen dira, inplikatutako profesionalekin eta arriskuan dauden ikasleen familiarekin koordinatuta.

-Beharrezkoa bada, laguntza eta aholkua eskatuko zaio Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari edo Bizikidetza Aholkularitzari.

<u>Ikasleek egin beharrekoa:</u>

-Erreferentziazko irakasleei jakinaraztea, bizkor, eraginkortasunez eta konfidentzialtasunez, arrisku-faktoretzat jotzen ahal den alarma-zantzu oro.

-Jarrera lasaia eta ulerkorra izatea, arrisku-egoeran dagoen ikaslea entzutea eta laguntzea, eta esku hartzen duten irakasleen lana erraztea.

-Berdinen arteko laguntza-sarea erabiltzea arriskuan dagoen ikasleari laguntzeko eta akonpainamendua egiteko, kasua koordinatzen duten irakasleen aholkularitzapean.

-Krisi-egoeran dagoen ikaskideari proposatzea erreferentziazko edo laguntza-agente diren irakasleengana jotzea.

<u>Familiek egin beharrekoa:</u>

-Esku hartzen duten profesionalen lana erraztea (larrialdi-zerbitzua, pediatria, osasun mentala, irakasleak, gizarte-zerbitzuak eta abar).

-Ikastetxearekin koordinatzea arrisku-egoera edo jokabide autolitikoa jakinarazteko eta baterako jarduketetan parte hartzeko, hala adosten direnean.

-Aholkua eta orientazioa eskatzea, beharrezkoa bada.

-Seme-alaben zailtasunen eta/edo jarrera autolitikoen aurrean, entzuteko, hitz egiteko eta lasai egoteko jarrera izatea.

Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoa:

-Bizikidetza Aholkularitza ikastetxearekin harremanetan jarriko da, erakundearteko larrialdi-protokoloari jarrakiz, halakoen berri izanez gero.

-Hezkuntza-komunitateei aholku ematea, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren eta Bizikidetza Aholkularitzaren bidez, hala eskatzen den kasuetan.

-Bizikidetza Aholkularitzak hezkuntza-esparruan egiten diren laguntza-eskaera guztiei erantzunen die.

Ondoren: “Saiakera bat egon da jada”.

Irakasleek egin beharrekoa:

-Gertakari autolitiko baten aurrean, ikastetxearen jarduketak behar adina denbora hartuko du, eragindako pertsonen edo hezkuntza-komunitatearen beharren arabera. Ikastetxeak berak antolatuko ditu behar diren jarduketak eta irakaskuntza-laguntza, ikasleek aurre egin diezaieten beren kezkei edo arazoei.

-Kasuan esku hartzen duten profesional espezializatuekin koordinatuta lan egiten jarraitzea, asistentziazko edo akonpainamenduzko neurriak garatzeko, beharren arabera.

-“Aurretik” atalean deskribatutako prebentzio-neurriak aplikatzea, kasu bakoitzerako behar bezala doituta.

-Familiari laguntza ematea eta lankidetzan aritzea, dagokion kasuaren jarraipena egiteko.

-Ikastaldeari eta hurbileko beste pertsona batzuei laguntza ematen jarraitzea, kontuan hartuta bakoitzari zenbateraino eragiten dion gertatutakoak eta zer harreman duen pertsona horrekin.

-Zuzendaritzaren bitartez, suizidio burutuen kasuak jakinaraztea Bizikidetza Aholkularitzari, dagokion erregistroan zenbatu daitezen eta, hala badagokio, aholkularitza jasotzeko.

Ikasleek egin beharrekoa:

-Berdinen arteko laguntza-sareak erabiltzea gogo-aldartea eta inpaktuaren gainditze-maila ezagutzeko.

-Ikasleek erreferentziazko irakasleengana jotzen ahalko dute beren beharrak eta kezkak adierazteko.

-Arriskuan dagoen ikaslea entzutea, laguntzea eta elkartasunez jokatzea, eta jarrera bera izatea ingurune hurbileko beste pertsona batzuekin ere.

-“Aurretik” atalean deskribatutako prebentzio-neurrietan parte hartzen jarraitzea, unea eta egoera kontuan hartuta.

Familiek egin beharrekoa:

-Profesionalekin eta laguntza-agenteekin elkarlanean aritzea (pediatria, osasun mentala, irakasleak, gizarte-zerbitzuak eta abar).

-Ikastetxearekin lankidetzan aritzea batera egiten diren jardueretan, halakorik bada.

-Seme-alaben zailtasunak entzuteko eta elkarrizketarako prest egotea eta jarrera irekia izatea, saiakera autolitiko bat izan bada.

Hezkuntza Departamentuak egin beharrekoa:

-Hezkuntza-komunitateei aholku ematea, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren bidez eta Bizikidetza Aholkularitzaren bidez, hala eskatzen den kasuetan.

-Ikastetxeen eta beste profesional espezializatu batzuen arteko lankidetza-neurriak bultzatzea, sentsibilizazioa landu dadin eta prebentzio-neurriak eta baliabide asistentzialak gara daitezen. Esparru horretan dago “Hezkuntza Departamentuaren eta San Juan de Dios ospitalearen arteko lankidetza-hitzarmena, bizitzaren amaieraren gainean sentsibilizatzeari eta hezteari buruzkoa”.

-Bizikidetzari buruzko prestakuntza diseinatzea eta antolatzea irakasleentzat: nola ebatzi gatazkak, hezkuntza emozionala, psikologia positiboa, eta nola egin aurre doluari eta krisi pertsonalei.

-Ikasleen suizidio burutuak erregistratzea eta aztertzea.

-Jokabide suizidak prebenitzeko eta horien aurrean esku hartzeko Erakundearteko Batzordean parte hartzea, Bizikidetza Aholkularitzaren bitartez.

Ondoren: “Suizidio-saiakeraren ondorioz, ikaslea hil egin da”.

Kasu horretan, Suizidio-kasuen ondoko ekintzak hezkuntza-eremuan dokumentuan jasotako jarraibideei jarraitu behar zaie.

Informazio osagarria, ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko plana prestatzeko

Eranskin honetan deskribatu den jarduketa-eredua ikastetxe bakoitzak zehaztu behar du, “Ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko plana” idatzita, eta hori ikastetxearen Bizikidetza Planean jaso behar da.

Planean, eredu honetan aipatzen diren jarduketez gainera, honako informazio hau jaso beharko da:

-Familiaren eta erreferentziazko profesionalen telefono zenbakiak, argi eta erraz kontsultatzeko moduan (Larrialdiak: 112, pediatria, osasun mentala, gizarte-zerbitzuak, Bizikidetza Aholkularitza), ahalik eta azkarren gauzatzeko kasu bakoitzean behar diren harremanak eta koordinazioa.

-Ikastetxeak laguntza-agentetzat zehaztu dituen erreferentziazko irakasleen zerrenda, ikastalde guztiek jakin dezaten norengana jo, bai arrisku-egoeraren bat hautematen badute, bai arrisku-egoeraren bat gertatzen bada.

-“Adingabeengan jokabide suiziden arriskua ebaluatzeko gida” (Protokoloaren 3. eranskina).

-Zehaztuko da zer-nolako prestakuntza behar den ikastetxean gai honi buruz.

-Zehaztuko da nortzuk koordinatuko diren ikastetxearen dinamika antolatzeko, hezkuntza-komunitateari eragiten dion jokabide suizida bat gertatu ondoren (horretarako, aholkua eskatzen ahalko zaio Bizikidetza Aholkularitzari).

-Hezkuntza-komunitateak berak diseinaturiko beste jarduketa edo ekimena batzuk, helburu dutenak prebenitzea, informatzea eta sentsibilizatzea (dekalogoak, programak, ebaluazioak, ikasleen eta egoeraren araberako prebentzioa, eta abar). Horri dagokionez, Aholkularitzako kideok tresna hau proposatzen dugu: Segurtasun Plana: prebentzioa eta esku-hartzea jokabide autolitikoaren eta/edo suizidaren aurrean. Tresna horren eginkizuna dokumentu honen hurrengo atalean azaltzen da; atal horrek gida izan nahi du, orain arte azaldutako eredutik abiatuta, jakiteko nola heldu ideiagintza suizidari eta jokabide autolitiko nahiz suizidari.

-Argi izan behar dugu zer ez egin. *Ideiagintza suizida baten berri dugunean, badira zeharkatu behar ez diren muga batzuk, egoera okertu baitezakete.*[6]

• Beti hartu behar ditugu zinetan informazioa eta mehatxuak. Inola ere ez diegu entzungor egin behar ideiagintza suizidaren hitzezko adierazpenei edo zantzuei; ez dugu arriskua gutxietsi behar, esanez arreta erakartzeko saio hutsak direla edo denborarekin berez desagertuko direla. Beti hartu behar ditugu zinetan informazioa eta mehatxuak, garrantzia kendu gabe baina larritu gabe. "Ez da hainbesterako izanen… pasatuko zaizu…". "Arreta bereganatu nahi du, besterik ez".

• Ez kritikatu, ez eztabaidatu, ez erabili sarkasmorik, eta ez desafiatu edo erronkarik bota hori egitera bultzatzeko. Ez da gaitzetsi behar pentsatzeko edo jokatzeko modua, eta ez da epaitu behar, ez hitzez, ez hitzik gabeko hizkuntzaren bidez nahiz keinuen bidez. "Nola esaten ahal duzu hori?", "Min handia eginen diozu zure familiari…".

• Ikasle horri ez diogu geure beldurra edo izua adierazi behar. Ulertzekoa bada ere une horretan nola jokatu ez jakitea, gogoan izan behar dugu garrantzitsuena dela pertsona entzuna sentitzea, bai eta lehenbailehen babesa eta laguntza bilatu behar ditugula ere.

• Inoiz ezin diogu informazio hori familiari ezkutatu, pertsonak konfidentzialtasuna eskatu arren. Ikaslearen baimena lortzen saiatuko gara, eta erakutsiko diogu laguntza jasoko duela.

• Taldeko esku-hartzeak, suizidio-saiakerarik edo suizidiorik izan bada, ez dira egin behar prestakuntza egokirik ez badugu.[7]

- *Aitzitik, **bere buruaz beste egiteko asmoa agertzen digun pertsona baten aurrean, honako printzipio orokor hauek** izan ditzakegu kontuan:*

• Ez dugu larritu behar, baina bai zinetan hartu informazio hori.

• Sustatu bere arazoen berri eman diezagun, eta horien aurrean nola sentitzen den konta diezagun.

• Ahalik eta gutxien mintzatu behar dugu, beste pertsonaren ahotsak har dezan nagusitasuna.

• Pertsona ukitu.

[6] Dokumentu honetan, letra etzanez jarri ditugu 2014ko protokoloaren jatorrizko idazketari Aholkularitzak egindako ekarpenak. Ekarpen horietako batzuk Aragoiko eta Gaztela-Mantxako autonomia-erkidegoetako prebentzio- eta esku-hartze gidetatik datoz.
[7] NAPRESUI, formación.

• Ez dugu geure burua adibidetzat jarri behar, ez eta geure gauzez edo esperientziez hitz egin behar ere.

• Laguntza eskatu, seguru sentitzen ez bagara.

• Lagun egin arriskua igaro arte. Arriskua gainditu dela pentsa dezakegu pertsona pentsamendu suizidekiko kritiko agertzen denean (hitzez adierazita), aldartea hobetzen zaionean eta erlaxatuago, lasaiago, kolaboratzaileago eta eguneroko jardueretan interesatuago dagoenean.

• Ez da komeni bizitzaren ustezko alderdi onez solastatzea; hain zuzen ere, horixe da pertsonak une horretan ikusten ez duena.

• Suizidio-arriskuak bere horretan badirau, eraman pertsona osasun mentaleko arreta espezializatua jasoko duen tokira.

PREBENTZIORAKO ETA ESKU-HARTZEKO GIDA

Jarraian, ideagintzarekin eta jokabide autolitiko nahiz suizidarekin lotutako egoera baten aurrean jarraitu beharreko pausoak aurkeztuko ditugu.

1. DETEKZIOA

Egoera honen berri izateko hainbat bide egon daitezke:

-Edozein irakaslek zenbait arrisku-faktore detektatzen dituenean *(hiru edo gehiago badaude, adierazgarria izan daiteke)*.

-Orientatzaileak ebaluazio-gida aplikatu eta arriskua dagoela egiaztatzen duenean.

-Familia batek bere semearen edo alabaren egoera emozionalari edo osasun mentalari buruzko kezka adierazten duenean.

-Baliabide asistentzial baten edo bestelako baten bidez jakiten denean (osasuna, gizarte-zerbitzuak, aisialdia, kirola, etab.).

-*Ikasleak berak edo hirugarren pertsonek (beste ikasle batzuek…)* hitzezko adierazpenen bat egiten dutenean.

-*Unean bertan* gertakari autolitikoak gertatzen direnean *edo aurrekariak* daudenean.

-Ebaluazio psikopedagogikoko probak, galdetegiak, bizikidetza-eskalak eta halakoak pasatzen diren testuinguru batean.

Egoera horiek ez dira zertan segidan edo aldi berean gertatu. Egoera bakar bat nahikoa izan daiteke esku-hartze bat abiatu behar den aztertzeko. Egokitzat jotzen bada esku-hartzearekin aurrera egitea, arrisku-egoera esploratzen jarraitu beharko litzateke, bi

gida hauen arabera: bat Haur eta Lehen Hezkuntzako etaparako, eta bestea Bigarren Hezkuntzako etaparako.

2. IDEAGINTZAREN ETA JOKABIDE AUTOLITIKO NAHIZ SUIZIDAREN ESPLORAZIOA

Hautemandako egoera zuzendaritzari eta orientazioari jakinarazi behar zaie, eta orientatzaileak zentralizatuko du informazioa biltzeko eta baloratzeko prozesua, jarraian deskribatzen diren giden arabera.

HAURREN JOKABIDE SUIZIDA EBALUATZEKO GIDA: HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPAK

Esplorazioa egiten jarraitzeko, honako item hauek hartuko genituzke kontuan (bakoitzak puntuazio jakin bat izanen du). Informazio hori emateko orduan, aitak, amak edo legezko tutoreak parte har dezake.

	ITEMA	PUNTUAK
1	Guraso gazteegiak edo heldugabeak	1
2	Haurdunaldiaren jarraipena eta kontrola egiteko zailtasunak	1
3	Gurasoen gaixotasun psikiatrikoa	2
4	Haurrak ez du lankidetzarako jarrerarik kontsultan	1
5	Haurraren portaeran aldaketak nabaritzen dira	3
6	Indarkeria etxean eta haurraren aurka	3
7	Jokabide suizidaren aurrekariak familian (gurasoak, anai-arrebak, aitona-amonak) edo lagunen artean.	2
8	Autosuntsiketako aurrekari pertsonalak	2
9	Gurasoen adierazpen desatseginak haurrari dagokionez	3
10	Egoera gatazkatsua gaur egun (familia berriki hautsia, heriotzak, eskola-porrota, etab.)	2
	Puntuak, denera:	

Balorazio kuantitatiboaren ondorengo egoerak:

10 puntu edo gehiago	-Gida honen behealdean zehazten diren “funtsezko galderak” egin ikasleari.

	-Jarduketa-plana aurrera eramateaz gain, epe laburrean bermatu behar da ikaslea osasun mentalean edota larrialdietan artatuko dutela. *Jarduketa-plan hori dokumentu honetan aipatzen den tresna erabiliz idatzi behar da, eta "Segurtasun Plana" deituko zaio.*
10 puntu baino gutxiago	-Baina susmoak badaude, orientatzaileak baloratuko du ea egoera familiari jakinarazi behar zaion, profesional espezializatuek arreta eman diezaioten ikasleari.

Jarraian, galderak egiteko moduari buruzko gomendioak eta egin beharreko galdera zehatzak jaso dira, oro har, arrisku-egoerak modu orokorrean esploratzeko eta, zehazki, ideagintza eta jokabide autolitiko/suizida aztertzeko.

Nola galdetu eta zer jarrerarekin:

-Argi eta errespetuz heldu gai zail eta pertsonal honi.

-Ikasleari lagundu nahi diogula adierazi. Beharbada ez duzu jakinen zer esan, baina ez du axola, hark hauxe behar du: zu hor egotea, eta baldintzarik gabe entzutea.

-Ez egin adierazpen gaitzesgarri edo moralizatzailerik (ez eman leziorik).

-Ez saiatu konbentzitzen bere jokabidea okerra dela. Ez erabili, halaber, honelako esaldirik: "Badakit nola sentitzen zaren". *Era berean, azpiko ezongia gutxiestea saihestu behar da: "Hori denoi gertatu zaigu", "Trankil, pasatuko zaizu eta", "Ez eman horrenbesteko garrantzirik/hainbeste buelta"...*[8]

-Lasaitasuna eta segurtasuna erakutsi. Nahi duen erritmoan hitz egiten utzi.

-Xehetasunez eta modu irekian sakondu suizidio-arriskua baloratzen laguntzen duten alderdi guztietan, baina ez egin alferrikako galderarik edo galdera morbosorik.

-Konfidentzialtasuna zaindu, eta ez sortu gehiegizko alarma-egoerarik, kontrako ondorioa izan dezakete eta.

-Ez erabili inoiz sarkasmorik edo ironiarik.

-Erreparatu pertsonak esaten duen horri, baina baita haren gorputz-adierazpenari, keinuei eta ahots-tonuari ere; begiratu hitzez adierazitakoaren eta gorputz-adierazpenaren artean egon litekeen koherentzia-faltari ere.

-Galderak ahoz egin (ez idatziz), behin enpatia ezarritakoan eta pertsona ulertua sentitzen denean.

-Ikaslea eroso sentitu eta bere sentimenduak adierazten hasten bada, arreta berezia jarri behar dugu; batez ere, bakardade- edo ezintasun-sentimenduak azaltzen ari bada.

[8] El texto inclinado es una aportación de la Asesoría sobre el texto original.

<u>Hasierako galderak, etsipen-maila ezagutzeko</u> Galdera zehatzen formulazioa eta garapena haur bakoitzari egokitu behar zaizkio. Galdera horiek familiak egiten ahalko ditu, betiere aurretik orientatzaileak zehaztuta eta berarekin batera egindako prestaketa baten ondoren; elkarrizketa bukatutakoan, informazio hori orientatzaileari eman behar zaio. Hori guztia, baldin eta familiak lan hori egiteko gaitasuna duela baloratzen bada.

-Zoritxarreko edo dohakabe sentitzen zara?
-Itxaropen oro galdu duzu? Zure ustez, gauzak ez dira aldatuko?
-Ez zara sentitzen egunerokotasunari aurre egiteko gauza?
-Bizitza zama astuna dela sentitzen duzu?
-Bizitzea merezi duela iruditzen zaizu?
-Zeure buruaz beste egiteko gogoa sentitzen duzu?

Arrisku-egoera bat dagoela egiaztatzen bada, funtsezko galdera hauek egin beharko lirateke, baloratzeko zein den ideagintza eta jokabide suizidaren arrisku-maila.

Hasieran 1. eta 2. galderak eginen lirateke, eta erantzuna negatiboa balitz, ez lirateke gainerakoak eginen. Bigarren galderari emandako erantzuna positiboa balitz, 3., 4., 5. eta 6. galderak eginen lirateke.

1. Hilda egoteko nahia, ikaslearen bizitzan zehar. Hilda egoteko edo bizitzen ez jarraitzeko nahiari buruzko pentsamenduak adierazten ditu, edo lo gelditzea eta berriz ez esnatzea nahi luke.

Noizbait pentsatu duzu hila egon nahiko zenukeela, edo lo hartu eta berriz ez esnatu?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

2. Suizidio-pentsamendu aktibo ez-espezifikoak. Pentsamendu orokor ez-espezifikoak, bizitza bukatzeko edo bere buruaz beste egiteko nahia adierazten dutenak (adibidez, “Neure burua hiltzea pentsatu dut”), pentsamendurik izan gabe hiltzeko moduari, metodoari, asmoari edo planari buruz.

Benetan pentsatu duzu zeure burua hiltzea?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

3. Suizidio-ideia aktiboak, edozein metodo erabilita, planik gabe eta jarduteko asmorik gabe. Ikasleak bere buruaz beste egiteko pentsamenduak adierazten ditu, eta gutxienez metodo bati buruz pentsatu du azken asteetan. Ez du plan espezifikorik, ez baititu zehaztu ordua, tokia edo metodoaren gaineko xehetasunak (adibidez, hiltzeko metodo bat buruan izatea, baina ez plan espezifiko bat). Honako hau esan lezake, adibidez: "Pilulen gaindosia hartzea pentsatu dut, baina inoiz ez dut egin plan espezifikorik, non, noiz edo nola eginen nukeen zehazteko, eta inoiz ez nuke gauzatuko".

Pentsatu duzu nola egin zenezakeen?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

4. Ideia aktiboak bere buruaz beste egiteko, nolabait jarduteko asmoarekin, plan espezifikorik gabe. Ikasleak bere buruaz beste egiteko pentsamendu aktiboak ditu, eta adierazten du nolabaiteko asmoa izan duela pentsamendu horiei jarraikiz jarduteko. Honako hau esan lezake, adibidez: "*Aitaren pilulak hartzea pentsatu dut, edo neure burua leihotik behera botatzea*".

Pentsamendu horiek izan dituzu, eta, pentsatzeaz gainera, uste izan duzu gauzatuko zenituela?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

5. Bere buruaz beste egiteko ideia aktiboak, jarduteko asmoarekin eta plan espezifikoarekin. Bere burua hiltzeko pentsamenduak, guztiz edo zati batean landutako planaren xehetasunekin, eta ikasleak nolabaiteko asmoa izan du plana gauzatzeko.
Ba al dakizu nola eginen zenukeen? Hasi zara hori gauzatzeko xehetasunen bat prestatzen?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

6. Jokabide suizida planifikatzea eta denboran kokatzea. Plan bat dauka, eta badaki noiz gauzatuko duen.

Plan hori gauzatuko duzu? Noiz?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

Zer egin funtsezko galderei erantzun dienean?

-Kontuan izan itemen adierazleak eta ikaslearen arrisku- eta babes-faktoreak (Protokoloaren 5. kapitulua).

-Profesionalak era aktiboan esku hartu behar du ideiagintza suizidaren zantzu ororen aurrean. -Zenbat eta susmo handiagoa izan suizidio-arriskua badagoela, orduan eta irmoagoa eta zuzenagoa behar du izan esku-hartzeak. Jarraitu 3. fluxugramako urratsei.

-*Beharrezkoa bada familiak eta/edo beste profesional batzuek esku hartzea*, familiak eta/edo profesionalek esku hartu arte:

- Identifikatu zer babes pertsonal eta familiar dituen.
- Lasai egon, laguntza eman, prestutasuna eta afektu positiboa agertu.
- Bistatik kendu bitarteko arriskutsuak (kuterrak, objektu zorrotzak, pilulak eta abar).
- Eman egoeraren berri familiari eta profesionalei, eta lortu laguntza.
- Arriskua handia bada, pertsonaren alboan egon. *Arrisku handiko kasu guztietan.*
- Ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko planari jarraitu; hor zehaztu bezala jardun.

NERABEEN JOKABIDE SUIZIDA EBALUATZEKO GIDA: DBH, LH, BATXILERGOA

	ITEMA	PUNTUAK
1	Familia hautsia izatea	1
2	Gurasoen nahasmendu mentala dute	2
3	Jokabide suizidaren aurrekariak familian	3
4	Ikaskuntza-nahasmenduen aurrekariak, ikastetxetik ihes egitea, beketara edo erregimen militarrera ez moldatzea	2

5	Autosuntsiketako jokabidearen aurrekari pertsonalak	4
6	Aldaketa nabarmenak ohiko jokabidean	5
7	Ideiagintza suizida eta haren aldaerak egotea (keinuak, mehatxuak, plan suizida)	2
8	Nahasmendu mentalaren aurrekari pertsonalak	5
9	Nahasmendu mentalaren aurrekari pertsonalak	4
10	Gaur egun gatazka bat izatea (familian, bikotekidearekin, ikastetxean eta abar)	2
	Puntuak, denera:	

JARRAIBIDEAK:

12 puntu edo gehiago	-Batuketa 12 puntu baino gehiagokoa bada, ikasleari “funtsezko galderak” egin behar zaizkio (gida honen behealdean).
	-Halaber, 12 puntu baino gehiago lortuz gero, jarduketa-plana gauzatzen jarraitzeaz gain, epe laburrean bermatu behar da ikaslea osasun mentalean edota larrialdietan artatuko dutela.
12 puntu baino gutxiago	-Batuketa 12 baino txikiagoa bada, baina susmoak badaude, orientatzaileak baloratuko du ea egoera familiari jakinarazi behar zaion, profesional espezializatuek arreta eman diezaioten ikasleari.

Jarraian, galderak egiteko moduari buruzko gomendioak eta egin beharreko galdera zehatzak jaso dira, ideiagintzaren eta jokabide suiziden alderdiei buruzkoak.

Nola galdetu eta zer jarrerarekin:

-Argi eta errespetuz heldu gai zail eta pertsonal honi.

-Ikasleari lagundu nahi diogula adierazi. Beharbada ez duzu jakinen zer esan, baina ez du axola, hark hauxe behar du: zu hor egotea, eta baldintzarik gabe entzutea.

-Ez egin adierazpen gaitzesgarri edo moralizatzailerik (ez eman leziorik).

-Ez saiatu konbentzitzen bere jokabidea okerra dela. Ez erabili, halaber, honelako esaldirik: “Badakit nola sentitzen zaren”.

-Era berean, azpian datzan ezongia gutxiestea saihestu behar da: “Hori denoi gertatu zaigu”, “Trankil, pasatuko zaizu eta”, “Ez eman horrenbesteko garrantzirik/hainbeste buelta”...

-Lasaitasuna eta segurtasuna erakutsi. Nahi duen erritmoan hitz egiten utzi.

-Xehetasunez eta modu irekian sakondu suizidio-arriskua baloratzen laguntzen duten alderdi guztietan, baina ez egin alferrikako galderarik edo galdera morbosorik.

-Konfidentzialtasuna zaindu, eta ez sortu gehiegizko alarma-egoerarik, kontrako ondorioa izan dezakete eta.

-Ez erabili inoiz sarkasmorik edo ironiarik.

-Erreparatu pertsonak esaten duen horri, baina baita haren gorputz-adierazpenari, keinuei eta ahots-tonuari ere; eta begiratu koeherentzia-faltarik ote dagoen hitzez adierazitakoaren eta gorputz-adierazpenaren artean.

-Galderak ahoz egin (ez idatziz), behin enpatia ezarritakoan eta pertsona ulertua sentitzen denean.

-Ikaslea eroso sentitu eta bere sentimenduak adierazten hasten bada, arreta berezia jarri behar dugu; batez ere, bakardade- edo ezintasun-sentimenduak azaltzen ari bada.

Hasierako galderak, etsipen-maila ezagutzeko:

-Zoritxarreko edo dohakabe sentitzen zara?
-Itxaropen oro galdu duzu? Zure ustez, gauzak ez dira aldatuko?
-Ez zara sentitzen egunerokotasunari aurre egiteko gauza?
-Bizitza zama astuna dela sentitzen duzu?
-Bizitzea merezi duela iruditzen zaizu?
-Zeure buruaz beste egiteko gogoa sentitzen duzu?

Hasieran 1. eta 2. galderak eginen lirateke, eta erantzuna ezezkoa balitz, ez lirateke gainerakoak eginen. Bigarren galderari emandako erantzuna baiezkoa balitz, 3., 4., 5. eta 6. galderak eginen lirateke.

1. Hilda egoteko nahia, ikaslearen bizitzan zehar. Hilda egoteko edo bizitzen ez jarraitzeko nahiari buruzko pentsamenduak adierazten ditu, edo lo gelditu nahi luke eta berriz esnatu ez.

Noizbait pentsatu duzu hila egon nahiko zenukeela, edo lo hartu eta berriz ez esnatu?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

2. Suizidio-pentsamendu aktibo ez-espezifikoak. Pentsamendu orokor ez-espezifikoak, bizitza bukatzeko edo bere buruaz beste egiteko nahia adierazten

dutenak (adibidez, "Neure burua hiltzea pentsatu dut"), pentsamendurik izan gabe hiltzeko moduari, metodoari, asmoari edo planari buruz.

Benetan pentsatu duzu zeure burua hiltzea?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

3. Suizidio-ideia aktiboak, edozein metodo erabilita, planik gabe eta jarduteko asmorik gabe. Ikasleak bere buruaz beste egiteko pentsamenduak adierazten ditu, eta gutxienez metodo bati buruz pentsatu du azken asteetan. Ez du plan espezifikorik, ez baititu zehaztu ordua, tokia edo metodoaren gaineko xehetasunak (adibidez, hiltzeko metodo bat buruan izatea, baina ez plan espezifiko bat). Honako hau esan lezake, adibidez: "Pilulen gaindosia hartzea pentsatu dut, baina inoiz ez dut egin plan espezifikorik, non, noiz edo nola eginen nukeen zehazteko, eta inoiz ez nuke gauzatuko".

Pentsatu duzu nola egin zenezakeen?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

4. Ideia aktiboak bere buruaz beste egiteko, nolabait jarduteko asmoarekin, plan espezifikorik gabe. Ikasleak bere buruaz beste egiteko pentsamendu aktiboak ditu, eta adierazten du nolabaiteko asmoa izan duela pentsamendu horiei jarraikiz jarduteko. Honako hau esan lezake, adibidez: "*Aitaren pilulak hartzea pentsatu dut, edo neure burua leihotik behera botatzea*".

Pentsamendu horiek izan dituzu, eta, pentsatzeaz gainera, uste izan duzu gauzatuko zenituela?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

5. Bere buruaz beste egiteko ideia aktiboak, jarduteko asmoarekin eta plan espezifikoarekin. Bere burua hiltzeko pentsamenduak, guztiz edo zati batean landutako planaren xehetasunekin, eta ikasleak nolabaiteko asmoa izan du plana gauzatzeko.

Ba al dakizu nola eginen zenukeen? Hasi zara hori gauzatzeko xehetasunen bat prestatzen?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

6. Jokabide suizida planifikatzea eta denboran kokatzea. Plan bat dauka, eta badaki noiz gauzatuko duen.

Plan hori gauzatuko duzu? Noiz?

- Bai
- Ez

Erantzuna baiezkoa bada, deskriba dezala:

Zer egin funtsezko galderei erantzun dienean?

-Kontuan izan itemen adierazleak eta ikaslearen arrisku- eta babes-faktoreak (Protokoloaren 5. kapitulua).

-Profesionalak era aktiboan esku hartu behar du ideiagintza suizidaren zantzu ororen aurrean. -Zenbat eta susmo handiagoa izan suizidio-arriskua badagoela, orduan eta irmoagoa eta zuzenagoa behar du izan esku-hartzeak. Jarraitu 3. fluxugramako urratsei.

-*Beharrezkoa bada familiak eta/edo beste profesional batzuek esku hartzea*, familiak eta/edo profesionalek esku hartu arte:

- Identifikatu zer babes pertsonal eta familiar dituen.
- Lasai egon, laguntza eman, prestutasuna eta afektu positiboa agertu.
- Bistatik kendu bitarteko arriskutsuak (kuterrak, objektu zorrotzak, pilulak eta abar).
- Eman egoeraren berri familiari eta profesionalei, eta lortu laguntza.
- Arriskua handia bada, pertsonaren alboan egon. *Arrisku handiko kasu guztietan.*
- Ikastetxean jokabide suizida prebenitzeko eta horren aurrean esku hartzeko planari jarraitu; hor zehaztu bezala jardun.

3. IDEAGINTZAREN ETA JOKABIDE AUTOLITIKO EDO SUIZIDAREN ARRISKUAREN BALORAZIOA

Aurreko fasean bildutako informazioa orientatzaileak baloratuko du, eta ondorioztatuko du zein den ideagintzaren eta jokabide autolitiko edo suizidaren arrisku-maila.

Balorazio hori detekzioa eta esplorazioa egiten diren aldi berean egin daiteke, batez ere arrisku handieneko egoeretan. Egoera horietan, faseak berehala edo ordu gutxiren buruan garatuko dira.

Balorazio-mailak eta horietatik eratorritako ekintzak honako hauek lirateke:

Ideagintza suizidaren profila	Arrisku-maila	Ekintza
Heriotzari buruzko zenbait pentsamendu izan ditu (adibidez: “ezin dut aurrera jarraitu”, “hilik egon nahi nuke”), baina ez du inolako planik.	Txikia[9]	• Tutoreak jarraipena egin, orientatzailearen aholkularitzarekin. • Familiari jakinarazi. Pediatrarekin ordua hartzea gomendatu.
Pentsamendu eta plan suizidak ditu, baina ez dira berehalakoak.	Ertaina	• Zuzendaritzari jakinarazi. • Suizidio-protokoloa ireki. • Familiari jakinarazi. • Segurtasun-plana aktibatu: 1. eta 2. mailak. • Tutoreak jarraipena egin. • Orientatzaileak jarraipena egin. • EDUCAn erroldatu[10] (balorazio psikologikoarekin).

[9] En estas situaciones, aunque no se aperture protocolo, hay que atender también el malestar que pueda manifestar el alumno, la alumna tanto en el centro como en consiguiente derivación a Salud.
[10] Será factible el censo en Educa, del alumnado con conducta suicida previo diagnóstico del/de la profesional sanitario/a de acuerdo a los manuales de diagnóstico CIE 11 o DSM-5-TR. Ese diagnóstico mediante documentación acreditativa permitirá la inclusión del / de la alumna en el censo ACNEAE, categoría 7, Otras condiciones de salud, Eje 900, Otros diagnósticos de salud mental.

Plan zehatz bat du, hori aurrera eramateko baliabideak ditu, eta berehala egiteko asmoa du.	Handia	• Zuzendaritzari jakinarazi. • Suizidio-protokoloa ireki. • Familiari jakinarazi. • Segurtasun-plana aktibatu: 1., 2. eta 3. mailak. • Presako neurriak aktibatu: 3. fluxu-diagrama. • Tutoreak jarraipena egin. • Orientatzaileak jarraipena egin. • EDUCAn erroldatu (balorazio psikologikoarekin).

Arriskua baloratzeko orduan, garrantzitsua da esplorazioa egitean eta informazioa bilatzean, goian jasotakoez gain (eta Protokoloko 5. kapituluan aipatutakoez gain), **arrisku ertaina edo handia adierazten duten beste egoera eta faktore batzuk dauden begiratzea:**

-Zenbait autolesio-gertakari izatea.

-Agurtze-keinuak: mezuak sare sozialetan, paperean idatzitako testuak, objektuak oparitzea, hitzorduak bertan behera uztea, bat-bateko baikortasun-aldiak eta aktibitate handia…

-Esplizituak ez diren laguntza-eskaerak, "laguntza-dei" gisa interpreta daitezkeenak, hainbat eratara eginak: adierazpen fisikoak (ezongia, antsietatea...); irakasleen edo orientatzailearen hurbiltasuna maiz bilatzea…

-"Profil baxuko" ikasleak: eskaerarik egiten ez dutenak, bakartuak, "ikusezin" bihurtutakoak... Aisa igarotzen dira oharkabean.

Azkenik, krisi-egoeran eta berehalako autolisi-arriskua dagoenean, honela jokatu behar da:

ASALDATUA BADAGO. EZ DU MINTZATU NAHI ETA UKO EGITEN DIO LAGUNTZARI.

1. *Deitu 112ra.*
2. *112koak iritsi bitartean egin beharrekoak:*
   - *Ingurune seguru bat eskaini, kaltegarriak izan daitezkeen bitartekoak urrutiratuz.*
   - *Pertsona bakar batek hitz eginen du ikaslearekin.*
   - *Ikasleari etengabe begiratu begietara.*
   - *Baimena eskatuta hurbildu, "haren espazioa" inbaditu gabe.*
   - *Kasu eman hitzik gabeko hizkuntzari eta arriskua adieraz dezaketen keinuei.*
   - *Galdetu zerbait behar duen (adibidez, baso bat ur).*

• Entzute aktibo eta enpatikoari eutsi, hark dioena entzuten eta ulertzen dugula erakutsiz.
• Ahal dela, ez dadila beste ikaslerik egon hor.

3. Deitu familiari edo legezko ordezkariei.

EZ DAGO ASALDATUA. MINTZATZEKO ETA LAGUNTZA JASOTZEKO PREST DAGO.

1. Deitu familiari edo legezko ordezkariei.
2. Familiaren edo legezko ordezkarien zain gauden bitartean egin beharrekoak:
• Ikaslea toki pribatu eta seguru batera lagundu.
• Pertsona bakarra mintzatuko da ikaslearekin; lehentasunez, orientatzailea edo ikaslearentzat konfiantzazkoa den irakasle bat.
• Kasu eman hitzik gabeko hizkuntzari eta arriskua adieraz dezaketen keinuei.
• Galdetu zerbait behar duen.
• Entzute aktibo eta enpatikoari eutsi, hark dioena entzuten eta ulertzen dugula erakutsiz.
• Ez dadila beste ikaslerik egon hor, edo ez dezatela egoeran esku hartu.
3. Bere inguruko ospitaleko larrialdi-zerbitzura bideratu, balora dezaten; baita oinarrizko osasun-laguntzara ere, Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko zerbitzura bidera dezaten.

4. SUIZIDIO-PROTOKOLOA IREKITZEA

Oro har, arriskua ertaina edo larria dela iritzi denean abiaraziko da protokoloa. Horrek ez du esan nahi, arrisku-maila horiez gain, arrisku arineko egoeretan ere suizidio-protokoloa ireki ezin denik; hezkuntza-orientazioko profesionalaren balorazioaren arabera erabakiko da.

Protokoloa irekitzea ofizial egiten duen dokumentua I. eranskina da. **Bideratzea hau da: protokoloaren irekiera ikaslearen erreferentziako osasun-etxeari jakinaraztea (pediatra, gizarte-langilea, familiako medikua). Era berean, bideratze horretan, osasun-etxeari eskatuko zaio informazio horren berri ematea Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zentroari, edo osasun mentaleko zentroari ikasleak 17 urte edo gehiago baditu.**

Halaber, **auzo-unitatera edo oinarrizko gizarte-zerbitzura bideratuko da, baldin eta ikasleak adierazitako ezongia batez ere familia- edo gizarte-ingurunearekiko harremanaren ondorio izan badaiteke, eta guk dakigula ikaslea edota familia ez badira zerbitzu horien erabiltzaile.** Erabiltzaile badira, protokoloa ireki dela jakinaraziko da ikastetxearen eta gizarte-zerbitzuen arteko ohiko komunikazio-bideen bitartez.

Orobat, irekieraren berri emanen zaie Ikuskapen Zerbitzuari eta Hezkuntza Departamentuko Bizikidetza Aholkularitzari.

Aurreko guztia Educan jaso behar da, “Oharrak” atalean, sortutako dokumentazio guztia erantsita.

5. SEGURTASUN PLANA EGITEA: PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZEA

Plana pertsonalizatu eta egokitu egin behar da arrisku ertaina edo handia detektatu zaion ikasle bakoitzaren arabera; gainera, ez da baztertzen beste egoera batzuetarako ere prestatzea. Suizidio-protokoloa ireki ondoren hasi behar da plana egiten, eta horretarako epea gehienez ere hamar egun naturalekoa izanen da.

Plan hori idazteko tresna hau erabili behar da, eta horri jarraitu behar zaio. Planak hiru maila izanen ditu:

- Segurtasun Planeko 1. maila: norbera. Maila honetan, deskribatzen da zer neurri har ditzakeen ikasleak krisi-egoera baten aurrean bere burua modu autonomoan babesteko.

- Segurtasun Planeko 2. maila: ikastetxeak lagun egitea. Maila honetan, jasotzen da ikastetxeak zer neurri har ditzakeen ikasleari laguntza eta babes pertsonalizatua emateko. Besteak beste, hauek: tutoretza akademikoa eta afektiboa, hezkuntza-neurriak (errefortzuak, egokitzapenak…), berdinen arteko laguntza, koordinazioa zuzendaritza, orientazio eta irakasleriaren artean, familiarekiko harremana eta kanpoko agenteekiko koordinazioa (osasuna, gizarte-zerbitzuak, kirol-klubak…).

- Segurtasun Planeko 3. maila: kanpoko babes-neurriak eta kontingentzien aurreikuspena. Maila honetan, beste pertsona batzuek (irakasleek, zuzendaritzak, administrazio eta zerbitzuetako langileek, orientatzaileak) hartu beharreko babes-neurri guztiak biltzen dira, jokabide autolitikoa izateko arriskua duen ikaslearengan gerta daitezkeen kontingentzien aurrean. Neurri horiek honako hauetan dute eragina: ikastetxean sartzea eta ateratzea, gelan eta espazio komunetan egotea, ikastetxe barneko eta kanpoko joan-etorriak, eta material nahiz tresna kaltegarriak erabiltzeko aukera[11].

Segurtasun Plana, batez ere, arrisku ertaina edo handia duten ikasleentzat prestatuko da; arrisku handiko kasua bada, planak hiru mailak jaso beharko ditu. Plana honako hauei jakinarazi behar zaie: ikasleari berari, familiari, irakasleei eta planean arduraren

[11] En la aplicación de las medidas de protección es importante considerar si en el centro se han dado o no intentos autolíticos a la hora de determinar tanto los tipos de riesgo, los riesgos como tales y las medidas a aplicar. Como indicación general, en caso que la valoración del riesgo de la conducta autolítica es alto y ello conllevaría la aplicación de las medidas de protección, las medidas base tienen que ver con el acompañamiento y supervisión de la estancia del alumno, alumna en el centro, saber en todo momento dónde está el alumno, la alumna acerca de quién se elabora el plan de seguridad.

bat duten ikastetxeko gainerako langileei (oro har, zuzendaritza, ikaslearen zuzeneko irakasleak, AZLak eta atezainak).

Educa plataforman jokabide suizida izateko arriskua duen ikasle gisa erregistratzeko aukera izan eta familiak horren aurkako erreparoa edo kontrakotasuna agertuko balu, neurriak hala ere hartu eginen dira. Neurrien aurka ere egonez gero, kontsulta egin behar zaio Bizikidetza Aholkularitzari.

Azkenik, plan hori Educara igo behar da.

6. SEGURTASUN PLANA EBALUATZEA

Segurtasun Planaren ebaluazioa elkarrekin egin behar dute zuzendaritzak, tutoreak eta orientatzaileak. Honako hauek ebaluatuko dira: plana abiaraztea, haren eraginkortasuna aztertzea, ikastetxeak artatzeko duen gaitasuna berrikustea eta aurreikusitako ekintzak mantentzea edo aldatzea.

Plana berrikusteko epe eta maiztasun hauek proposatzen dira:

Arrisku-maila	Maiztasuna, epeak
Maila txikia	- Hamabostean behin, lehen hilabetean; hilean behin, bigarren hilabetetik aurrera (Segurtasun Plana dagoenean)
Maila ertaina	-Astean behin, lehen hilabetean -Hamabostean behin, bigarren hilabetean -Hilean behin, hirugarren hilabetetik aurrera
Maila handia	-Astean hirutan, lehen hamabostaldian -Astean behin, bigarren hamabostaldian -Astean behin, bigarren hilabetean -Hamabostean behin, hirugarren hilabetean eta hurrengoetan

Nolanahi ere, krisi-egoerak edo bestelakoak badaude, ebaluatzeko maiztasuna eta epeak aldatzen ahalko dira.

7. SUIZIDIO-PROTOKOLOA IXTEA

Hezkuntza-testuinguruan, protokoloa formalki itxiko da ikastetxeak edota ikaslearekin esku hartzen ari diren osasun-profesionalek ikusten dutenean ikaslearen ezongia nabarmen arindu dela eta hura kudeatzeko gaitasun erresilientea handitu duela.

Hemen, protokoloaren itxieraren alderdi espezifiko batzuk zehazten dira, honako kasuistika honen arabera:

-Hiru mailak dituen Segurtasun Plana: ados egon behar dira itxierarekin ikastetxea eta psikologo klinikoa edota psikiatra. Kasu horretan, osasun-profesionalek idatziz ofizialdu behar dute itxiera hori egokia dela.

-I. eta II. mailak dituen Segurtasun Plana: ados egon behar dira itxierarekin ikastetxea eta psikologo klinikoa edota psikiatra. Kasu honetan, ikastetxeak ixteko proposamena helaraziko die osasun-profesionalei, eta haiek informatuta geldituko dira.

I. maila soilik duen Segurtasun Plana: kasu honetan, ikastetxearen erabakiarekin nahikoa izanen da, eta osasun-profesionalei horren berri emanen zaie.

Egoera guztietan, itxiera Educara igo behar da, dagokion dokumentazioa erantsita. Ikaslea Educako erroldan jokabide suizidaren diagnostiko bati lotuta erregistratu bada, protokoloa ixteak berekin ekarriko du HLBP erroldan baja ematea arrazoi horri dagokionez. Ez da beharrezkoa izanen itxiera Bizikidetza Aholkularitzari edo Ikuskaritzari komunikatzea.

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu ikaslea etapaz aldatzen bada, edo ikastetxez, alderdi hauek kontuan hartzea:

-Informazio-eskualdatzea errazteko, protokolo osoa eta hortik eratorritako ekintzak Educan erregistratu behar dira.

-ikasturteaz, Ikastetxez edo etapaz aldatzeak ez dakar protokoloa automatikoki ixtea. Goian adierazitakoaren arabera soilik itxi daiteke.

-Etapaz aldatzean, jatorrizko ikastetxeko eta ikastetxe berriko orientatzaileen artean eskualdatuko da protokoloa irekia duten kasuen informazioa.

-Gauza bera aplikatuko da, halaber, etapa-aldaketarik gabeko ikastetxe-aldaketetan eta ikastetxe beraren barnekoetan.

-Jatorrizko ikastetxeko profesionalek ezin badute jakin zer ikastetxetara joanen den suizidio-protokolo irekia duen ikaslea, oso garrantzitsua izanen da familia inplikatzea informazioa transmititzeko eta ikastetxeen arteko koordinazioa eskatzeko. Familiak laguntzen ez badu, Bizikidetza Aholkularitzari egin behar zaio kontsulta.

-Gerta liteke suizidio-protokoloa ikastetxe batean ireki eta beste batean ixtea, goian aipatutako inguruabarrak direla eta.